



Torturak salatu dituzte Joxe Arregiren hilketaren 26. urteurrenean

ZIZURKIL ▶ TATk torturaren aurkako lan ildoak
aurkeztu eta abiarazi duten kanpaina azaldu zuen ▶ 4



Herenegun egin zuten ekitaldia Zizurkilgo Joxe Arregi plazan. I. ASENSIO



I. ASENSIO



ljitoa erretzearekin batera agur aurtengo inauteriei

LIZARTZA ▶ Antolatzaileak «gustura» azaldu
dira jaiek eman dutenarekin; Iñaki Zubeldia
dantzen egoeraz aritu da solasean ▶ 6

ALEGIA ▶

Galdeketa bat jarri dute martxan AHT proiektuari buruz

Sinadura bilketa aurkeztuko dute eta
asteartero bilerak egingo dituzte ▶ 5

TOLOSA ▶

Amaroz lantegiko kapitala gehituko dute

Akziodun eta langileek
jarriko dute dirua ▶ 2

Zure berezko higiezin
agentzia izan ezazu

Negozio
antolatua

Giltza
eskuan

TOLOSAN FRANKIZIA HARTU NAHI DUENA AUKERATZEN DUGU

INMO f3
RED inmobiliaria

Informa zaituz
948 077010
franquicia.inmof3.com

EKONOMIA ▶

Lantegiaren kapitala gehitzea erabaki dute

Amaroz paper fabrikak aurrera egin ahal izateko, 2,5 milioi euro ipiniko dituzte langile eta akziodunen artean

ESTI EZEIZA

Garai txarrak bizitzen ari da Amaro paper fabrika; dena den, langileek egindako ekarpen ekonomikoak eta beste zenbaiter esker, aurrera jarraituko du lantegiak. Pauso honez gain, egoerari aurre egiteko eta irtenbide bat bilatzearen, bideragarritasun plan bat egiteko eskatu diote enpresa bati. Baina hau aurrera eraman bitartean, 2,5 milioi euro horiekin jarraituko dute.

Bestalde, plana dela eta, oraindik ez dute zehaztu zerta-



Amaroz auzoan kokatua dago izen bereko paper fabrika. E. EZEIZA

ra bideratuko duten diru hori. 2,5 milioi eurotan handituko dute kapitala eta horietatik 950.000 euro langileek ipiniko dituzte. Gainontzekoa akziodunek jarriko dute. Hala ere, bi hauez gain hirugarren bazkide bat lortu nahian dabilta enpresakoak. Hala, oraindik zehaztu gabe badago ere, sektore berdineko enpresa batekin negoziaketetan ari dira, hitzarmen bat sinatzeko asmoz.

Aldaketa hauen ondorioz, akziodunen lantegiaren %42aren jabe izatera pasako dira, langileak beste %41arena, eta hirugarren bazkidea, %17arena. Honek adierazten duen bezala, hemendik aurrera adostasun maila altuagoa lortu beharko dute langile eta akziodunen artean.

135 urte dituen paper fabrika honetan, egun 120 pertsona ari dira lanean. Baina azken bi urteetako arazo ekonomikoak direla eta, dirurik ez jarri, eta beste nonbaitera joatea erabaki dute zenbait langilek.

KULTURA ▶

Ipuin kontalaria izango da bihar, Haur Liburutegian

Bihar, ipuin kontalaria izango da Tolosako Haur Liburutegian, 18:00etatik aurrera. 4 eta 9 urte bitarteko haurrei zuzendua dago *Marilur* kontu kontari saioa.

HEZKUNTZA ▶

Gurasoentzako hitzaldia gaur, Samaniegon

Gaur 18:30ean, DBHko 1. go. 2. eta 3. mailako gurasoek hitzaldia izango dute Orix institutuan, Hilario Garrudo psikologoarekin. Hizketaldiko gaia seme-alaben hezkuntzan erabili beharreko irizpide nagusiak zeintzuk diren azaltzea izango da.

KIROLAK ▶

Iraupen eskiko ikastaroan izena emateko aukera

Hurrengo bi asteburuetarako, hau da, otsailaren 24-25 eta martxoaren 3 eta 4rako, iraupen eskiko ikastaroa antolatuko du Alpino Uzturre elkarteak. Eskolak 1996-1995-1994 eta 1993 urtetan jaiotako neska-mutilei zuzenduta daude. Ikastaroa Somporten, Candanchutik gertu izango da. Ordutegiari dagokionean, larunbatetan 06:45ean aterata eta igandean 19:30ean itzuliko dira Tolosara. Informazio gehiago nahi duenak, eta izena emateko 685 776504 (Xanti) zenbakira deituaz egin dezake.

KULTURA ▶



Bandako kontzertua, jaien iragarle

J. Saizar ▶ Bete bezala, jendez bete zen Berdura plaza hererengun Udaltxistulari Banda eta Tolosako Musika Bandaren Inauteri kontzertua entzuteko. Entzulegoak Inauteri gosea erakutsi zuen eta kantuan eta dantzan jarraitu zituen jaietako doinuak. Txalo zaparrada ugari eskaini zizkieten musikariei, tartean kontzertu honetarako bereziki prestatu ziren Musika Bandako kide ohi batzuk. J. S.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47. behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Fax: 943 65 09 44
e-mail: enio@inmoenio.com
www.inmoenio.com

Anoeta. Duela gutxi erakuntzan duplexa salgai. Garaje ibia aukeran. Oso egoera onean.

Amezketza, Berastegi, Tolosa eta Zizurkil. Hainbat etxe bifamiliarrak eta abiki, eraikuntza berrikoak eta bigarren eskuoak.

Amezketza. 90m²ko sartzeko moduan dagoen etxebizitza. 3 logela eta 2 bainugela.

Belauntza. Etxe bifamiliarra salgai. Rustiko erara jarria. Ezin hobeto. 500m²ko lorategiarekin.

Irura. Labadero, 100 m². 3 logela, sukaldia, egongela eta 2 bainugela. Igogailuarekin.

Irura. Etxezarreta. 3 logela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Garajea aukeran.

Ibarra. San Inazio. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin.

Ibarra. Plaza inguruan. Bi logela, egongela, sukaldia eta bainugela; dena kanpoaldera. 180.300 euro.

Legorreta. Trastelekua salmentan. Bizikleta edo motorrak gordetzeko egokia.

Tolosa. Sputniks. Duplexa salgai. Berrituta eta berokuntzarekin. Altua, igogailuarekin.

Tolosa. San Esteban. Pisu altua igogailuarekin salgai. Kapribura berrituta.

Tolosa. Nafarroako ibilbidea. 3 logela eta 2 bainugelako pisua salgai.

Berrituta. Berokuntza eta igogailuarekin.

Tolosa. Berazubi. Igogailu proiektua onartuta. 228.384 euro.

Tolosa. Beotibar. 36 m². Altua, 150.000 euro.

Tolosa. Amaro. 3 logela, trasteleku eta berokuntzarekin. Pisu ederra salgai. Berrituta.

Tolosa. Eraikuntza berriko hainbat etxebizitza salgai. Bi, hiru eta lau logela aukeran. Garajeekin.

Tolosa. Zumalakarregi. 98 m²ko pisu zoragarria salgai. Ikuspegi ezin hobek. Estreinatze. Garajea aukeran.

Tolosa. Zumalakarregi. 92 m². 3 logela, 2 bainugela. Guztiz berrituta eta estreinatze. Garajeekin.

Tolosa. Pedro de Tolosa. 83 m². Distribuzio era ezberdinak. Garajea aukeran.

Tolosa. Kondeaneko aldapa. 2 logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Igogailuarekin.

Tolosa. San Frantzisko. 50 m²ko apartamentu berritua salgai. Igogailu, berokuntza eta garajeekin.

Tolosa. Pedro de Tolosa.

125 m²ko pisua salgai. Egoera oso ona. Garajea aukeran.

Tolosa. SAM. Iskineko etxe abikia salgai. Porxe eta guzti dauka.

Tolosa. Erabat akondizionatutako 120m² dituen lokal-bulegoa alokatzen da. Zonalde bikaina.

Egoera ezin hobea. Oso argitsua eta leiho handiekin. Aire girotua.

Egokia edozein bulegorako, mediku kontsultarako, delegaziorentzat.

Zizurkil. Etxe abikia salgai. Terrazarekin eta lorategiarekin.

Ezin hobeto. Orientazio bikainarekin.

Hernani. Akarregi. Errepidearen aldamenean. 385 m² dituen pabiloi industriala salgai.

Estreinatze.

ARETO FUTBOLA ▶

7-4 galdu du Laskorainek Santurtziren aurkako

Defentsa akats larriak eta zorte txarra izan zituzten; hurrengo, Zierbenaren aurka

ERREDAKZIOA

Esku hutsik bueltatu behar izan zuten horitxoek larunbatean Santurtziren aurkako partida 7-4 galdu ostean.

«Defentsa akats larriak eta zorte txarra» izan zituzten tolosarrek. Hori dela eta, 5-0 jarri ziren aurkariak. Dena den, 32 minutu geratzen ziren oraindik partidari buelta ematen saiatzeko. Hala, ikastolakoak joko hobea egiten hasi ziren, eta aldea murriztea lortu zuten. Telletxeak bi gol egin zituen, eta Saldiasek eta Yustosek gol bana egin zituzten. Norgehiagokako azken markagailua, beraz, 7-4koa izan zen.

Taldeko ordezkarien arabera, «aipamen berezia merezi dute filialetik igotako Otxoa eta Telleria jokalariek emandako mailagatik eta erakutsitako heldutasunagatik, beraiek kantxaratu zirenean hasi baitzen taldea ondo jokatzen».

Azken jardunaldiak ez dira onak izan laskoraindarrentzat eta datorren astean maila handia duen Zierbena taldearen aurka jokatuko dute. Azken asteetako emaitza txarrei buelta ematen saiatuko dira orduan, Javi delegatua, Egizabal entrenatzailea eta Domentxe, Telletxea, Saldias, Barriola, Alonso, Amatriain, Yustos, Otxoa eta Telleria.

Harrobiari dagokionez, Alonsoren mutilek, 3-4 irabazi zuten Azpeitian, eta Pradosen neskek berriz, 1-6 galdu zuten Intxurren aurkako derbia.

SASKIBALOA ▶

69-72ko garaipena Tolosa-Aralarrek Getxoren aurkakoan

Lau baja zituztela kontuan hartuta, zortzi jokalarirekin jokatu zuten; hurrengo Universidad Deusto-Loiolaren aurka

ERREDAKZIOA

Kalderero gaua zoriontsu pasatzeko moduan izan ziren TAKEko talde nagusiko mutiak, larunbateko partida. Getxoren aurkako, 69-72 irabazi ostean.

Partidarako lau baja izan zituzten, Unai, Joseba, Kike eta Alberto, hain zuzen. Gauzak horrela, eta nahiz eta getxotarrak sailkapenean behera xarrearrean dauden, «partida borrokatua» ikusi ahal izan zen. Getxotarrak maila mantentzeko helburuz indartsu irten ziren; baita tolosarrek ere garaipena beharrezkoa baitzuten lehen postuetan mantentzeko. Hasieran getxotarrak aurreratu baziren ere, berehala hartu

zuten aurrea tolosarrek eta lehen laurdenaren amaiera 14-19 iritsi ziren. Bigarren laurdenean 12 puntuko aldea lortu zuen Tolosa-Aralarrek, eta azkenean, 29-37 amaitu zuten.

Hirugarren laurdenean etorri zen etxekoen suspertzea. Hala, 48-49ko emaitzarekin bukatu zuten hirugarren partziala. Partida hasieran bezala hil ala bizi aritu ziren eta laugarren laurdenaren hasieran aurretik jartzea ere lortu zuten (51-49). Baina tolosarrek defentsa zertxobait sendotu zuten eta kontraeraso batzuen bidez berriro ere aurrea hartu zuten markagailuan, partidaren amaierara arte aurretik mantenduz. Azken emaitza 69-72koa izan zen.

Datorren asteburuan Tolosa itzuliko da txapelketa. Inauteriak direla eta Usabal kiroldegia itxita dagoenez, partida Eskolapioetan jokatuko dute larunbatean, 17:00etatik aurrera. Universidad Deusto-Loiola taldearen aurka jokatuko dute. Talde bilbotarra seigarren postuan dago sailkapenean eta joaneko partida puntu batengatik irabaztea lortu zuen Tolosa Aralarren aurka (68-67).

Bestalde, nagusien taldeak larunbat arratsaldean jokatuko badu, kadeteek goizean izango dute norgehiagoka. Hain zuzen ere, 11:00etan jokatuko dute Eskolapioetan. Aurkari bezala, Easo Ibaia taldea izango dute.

XAKEA ▶

Eskolarteko Xake Txapelketa aurrera doa

Gipuzkoako ligan Tolosa-Ibarrak irabazi egin zuen Donostiako Gros taldearen aurka

ERREDAKZIOA

Igandean Tolosaldeko Eskolarteko Txapelketako bigarren saioa jokatu zuten Tolosako Kultur Etxean. Infantiletan Orixeo Aimar Intxaurrendok jarraitzen du lehen postuan. Atzetik ditu Anoetako Ikastolako Oihana Etxenike eta Villabonako Jesusen Bihotzako Aitor Alkorta. Alebinetan Aitor Villena nabarmen nagusitzen ari da eta dagoeneko lau puntu ateratzen dizkio bigarrenari, Asteasuko Peio Errotako Mikel Muguruzari, eta bost hirugarrenari, Jesusen Bihotzako Eneko Maizi. Benjaminetan ez da aldaketarik egon. Danel Intxaurrendoko (Samaniego) eta Unai Mendizabal (Alegiko San Juan) dira liderak eta atzetik, bi puntura dago Hirukideko Mikel Arechaga. Nesken sailkapen berezian Samaniegoko Jone Mujika eta Berastegiko Salbarrediko Ane Salbarrediko dira lehen postuan. Puntu erdira dute Oihana Ugartemendia, Muñagorri Ikastolako. Datorren igandean jokalariek atsedena izango dute, beraz hurrengo saioa otsailaren 25ean izango da, 11:00etan, Tolosako Kultur Etxean.

Bestalde, larunbatean Gipuzkoako ligako txanda berri bat jokatu zuten. Tolosa-Ibarrak taldeak 2,5-1,5 irabazi zion Donostiako Gros taldeari. J. Mujikak irabazi eta S. Etxeberria, R. Etxeberria eta I. Muxikak berdindu egin zuten.

ARRAUNA ▶

TAKeko jubenil-senior emakumezkoen eta infantil gizezkoen garaipenak

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Batelena Ligako jardunaldi berri bat jokatu zuten larunbatean Tolosaldea Arraun Klubekoek Pasai Donibanetan. Hauek izan ziren emaitzak:

Infantil kadete emakumezkoetan Tolosaldea A-k laugarren postua lortu zuen 5 minutu eta 19 segundorekin, eta Tolosaldea B-k hamargarren

postua 5 minutu eta 42 segundorekin. Infantil mutiletan, berriz, Tolosaldea A-k lortu zuen garaipena 5 minutu eta 2 segundoko denborarekin, horrela 10 puntu batuz. Kadete gizezkoetan, Tolosaldea A bosgarren geratu zen 7 minutu 23 segundorekin eta Tolosaldea B zortzigarren 7 minutu eta 58 segundorekin. Jubenil senior mailan, Tolosaldea B-k lortu zuen garaipena 10 minutu eta

12 segundoko denborarekin, eta denera 11 puntu dituzte; maila berean, Tolosaldea A bosgarren postuan sailkatu zen 10 minutu eta 58 segundorekin.

Azkenik, jubenil gizezkoetan, Tolosaldea A-k bigarren amaitu zuen 9 minutu eta 20 segundorekin, eta Tolosaldea B, berriz, laugarren geratu zen 10 minutu eta 11 minutu behar izan zituelarik.

Asmo berriak behar ditugu. Egiguzu kritika.

www.eginbehardugu.com



www.eaj-pnv.com

ZIZURKIL ▶ POLITIKA

Torturen salaketa, Arregiren hilketaren 26. urteurrenean

Ekitaldian, Torturaren Aurkako Taldeko kideek torturaren aurka adosturiko lan ildoak aurkeztu zituzten eta abiarazi duten kanpainaren berri eman zuten



Torturaren Aurkako Taldeko kideak, herenegun Zizurkilgo Joxe Arregi plazan, haren omenez eginiko ekitaldian. I. ASENSIO

danik praktikatzen direla salatu zuten; Euskal Herrian ere hala izan dela gaurdaino adierazi zuten. «batzuek beti ukatzen duten arren egiten jarraitzen dute inolako zigorririk jasotzearen beldurrik izan gabe». Bestalde, «torturak aplikatzearekin herriak beldurra sentitzea eta mobilizazioekin gelditzea» lortu nahi dutela azaldu zuten. Hala, ekitaldia Joxe Arregiri omenaldia egiteko izateaz gain, mezu bat zabaltzeko ere badela adierazi zuten, «torturak gertatzen diren kasu guztietan salatu behar direla», alegia.

Joxe Arregi zizurkildarraren omenezko bertsoak entzuteko aukera izan zen, eta ondoren bere omenezko oroigarriaino gerturatu ziren ekitaldian parte hartu zuten herritarrek. Han, aureskua dantzatu zuten, eta lore eskaintza egin zuten. Honen ostean, manifestazioa burutu zuten, Zizurkildik Villabonara bitarte. Villabonatik Zizurkilera egin zuten berriro ere buelta, han amaitzeko. Egitaraua Zizurkilén bertan egin zuten bazkariarekin bukatu zen. Ehunka lagunek hartu zuten parte bazkarian ere. Hala, zizurkildarra erahil zutela gaur beteko dira 26 urte, eta hori dela eta, lore eskaintza egingo dute bere omenez gaur ere, Zizurkilgo hilerrian, 19:30ean. Halaber, Torturaren Aurkako Eguna izaki, elkarretaratzeak deitu dituzte hainbat herritan.

Kanpaina abian

Bestalde, Torturaren Aurkako Taldeak Elorrión eginiko bilera nazionalan ateratako ondorioak eta aurrera begira torturaren aurka jorratu beharreko lan ildoak aurkeztu zituzten herenegun Zizurkilén eginiko ekitaldian. Modu honetan, abian jarri zuten atxikimendu kanpaina, izan ere, ekainean izango den Torturatuén Babeserako Nazioarteko Egunean eragile sozial, politiko eta norbanakoen eskutik jasotako sinadurak aurkezteko asmoa dute.

ERREDAKZIOA

Torturaren Aurkako Taldeak antolatuta, duela 26 urte hil arte torturatu zuten Joxe Arregi zizurkildarra izan zuten gogoa herenegun eginiko ekitaldian. «Torturaren aurkako ikonoa» gogoratzeaz gain, Euskal Herrian Torturaren Aurkako Eguna gaur izango dela kontuan hartuta, torturak salatzea ere izan zuten helburu ekitaldian.

Goizean goiz mendi martxa egin zuten lehendabizi Iturriotzen dagoen Joxe Arregiren oroigarrian amaituz. Jende ugari bildu zen izen bera daraman Zizurkilgo plazan. Txalaparta doinuekin hasi zen ekitaldia, eta ondoren Joxe Arregiren arreba, Maribi Arregi eta torturak salatu dituzten Mikel Egibar, Nekane Txapartegi, Xabier Alegria, Unai Romano eta Martxelo Otamendi igo ziren eskenatokira. Egibarrek nahiz Txapartegik torturak aspaldi-

gure etxean
euskara
gure etxean
berria

Egin zaituz harpidedun

1. Kioskoan baino %10 merkeago.
2. Banaketa DOAN goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskoan...
3. Harpidedunentzat opariak: zozketak eta kupoiak astero, eta urte osoan erabiltzeko hainbat deskontu.
4. Promozioetan abantailak: BERRIAk ateratzen dituen liburukak, diskoak eta abar merkeago.

Orain eskaintza berezia

Otsailaren 28a baino lehen harpidetu* gero, oparia zuretzat

2 LAGUNENTZAKO BAZKARI EDO AFARIA
zuk aukeratzen duzun hauetako sagardotegi batean

GIPLUZKIA LARRE GAIN ☎ 943 555 816 HEGURI	GIPLUZKIA OTSUA-ENEA ☎ 943 556 804 HEGURI	BEIZKIA IBARRA ☎ 946 731 100 ZIZURKILGO
ARABA ITURRIETA ☎ 945 445 385 ALZOLA	NAFARROA MARTITXONEA ☎ 948 604 607 ALZOLA	

Deitu ORAIN!! **943 30 43 45**

aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

* Urte osoan eguneroko harpidetza izan behar du



Ekitaldian txalaparta doinuekin hasi zuten entzugai. I. ASENSIO

ALEGIA ▶ AHT

Proiektuaren gaineko galdeketa ireki dute

Sinadura bilketa eginik eta Udalean aurkeztu ondoren herri galdeketa egingo dute; bitartean, gaur ere bilera izango da

ERREDAKZIOA

Abiadura Handiko Trenaren inguruan informazio eta galdeketa prozesu bat ireki dute Alegian. Herritarrek eman zioten hasiera sinadura bilketa batekin. Bildutako sinadurak Udalean sartu eta ekimenak martxan jartzeko eskaera egin zuten alegiar hauek.

Ondoren Parte-Hartze batzordea hasi zen lanean eta eman beharreko pausoak zehazten hasi ziren. Bestalde, Udal Plenoak urtarrilaren 25ean egindako batzarrean eskaera hori baieztatu, galdeketa burutzeko konpromisoa hartu eta informazio bilketarako lana hartu zuen bere gain.

Parte-Hartze batzordeak orain arte emandako pausotan, taldea osatzeari eta ideiak biltzeari eman dio garrantzia. Horretarako jarri ditu hainbat postontzi herrian eta asteartero bilerak egiteari ekin dio.

Orain arteko asmoetan bi fase bereizten ditu batzorde honek: alde batetik informazioarena, eta horren ondoren, oraindik zehaztu gabe dagoen egunean herri galdeketa egitearena.



Alegian ere AHTri buruzko hitzaldiak egin nahi dituzte. INIGO TERRADILLOS

«Ez dakigu ziur zenbat denbora emango duen informazio fasea burutzeak: beraz, ezin dugu kontsulta eguna zehaztu. Lehenik eta behin informazioa bildu behar dugu: oso gutxi dago, eta dagoena sakabanututa, beraz Udalaren bidez dagozkie erakundeek eskatuko zaie, eta era berean prentsan

edo AHTren makroproiektua gelditzeke lanean diharduten gizarte mugimenduetatik ari gara informazioa biltzen».

Informazio hau kontsultatu zein zabaldu nahi duen edonoren esku jarriko dute. Horrez gain, «batzordeak berak konpromisoa hartu du ahal duen neurrian informazio hori za-

baltzeko». Horretarako jarriko dituzte kalean panelak, edo eskuorriak banatuko dituzte, besteak beste. Hauen bidez, «informazio soila, iritzirik gabea saiatuko gara zabaltzen, eta aldeko zein aurkako kanpaina egin nahi dutenei aukera eta laguntza emango diegu».

Kaleko jakinarazpenez gain, hitzaldiak antolatu nahi ditu Parte-Hartze batzordeak. «Gutxiarik, hiru hitzaldi ditugu buruan: bata AHT proiektua egin nahi dutenekin, bestea proiektua geratzeari alde daudenekin eta, azkenik, bi jarraera hauen arteko eztabaida». Horretarako hasi dira dagoeneko jendearekin harremanak izaten.

Bilerak, gaur eta asteartero

Herritarren iritzi desberdinak helarazten ere saiakera berezi bat egin nahi dute. «Zerbait adierazi nahi duenak batzordeari zuzenean edo jarrita dauden postontzien bidez egin dezake; bere ekarpenak eginez gero, honen konpromisoa izango da hori zabaltzea, gainerako alegiarrei ere iristeko». Alegiarren iritziak biltzen dituzten orriak, «edo behar bada aldizkaria, osatzeko eta gero kaleratzeko asmoa dugu» eta jendeak ematen duen iritziaz gain, «gu ere iritzi hori eskatzera joango gara».

Helburu nagusia jendeak prozesu honetan ahalik eta parte-hartze gehiena izatea da, informazioa jasotzea eta bere iritziak osotzea. «Horixe da lehen fase honetako helburua. Ondoren, herritarrei galdetu egingo zaie zein den iritzi hori».

Batzordeak azpimarratu nahi duen azken puntua irekitasunarena da. «Parte-Hartze batzordea, hain zuzen, asmo hauen inguruan ari da lanean. Hauxe gain, jendeak azaldu behar du bere kezak, gogoak eta proposamenak. Batzordea etortzea da horretarako onena edo ideia horiek guri ekartzea». Gaur 19:30ean bilduko dira udaletxean, lanean jarraitzeko.

IKAZTEGIETA ▶

Euskadiko Sei Orduak saioan Leire Olaberria ariko da

Larunbateko jaialdian txirindulariak eta harri-jasotze saio bereziak izango dira

NEREA URBIZU

Donostiako Anoeta izena zuen Antonio Elorza belodromo berrian egingo dira Euskadiko Sei Orduak aurten. Belodromoaren konpontze lanak diera eta, bi urtez bertan behera geratu izan den probaren 27. edizioa izango da eta datorren larunbatean, 15:00etatik 21:00etara bitartean egingo da. Honetan txirindularitza nagusi bada ere, denetik izango da.

Leire Olaberriak hartuko du parte, Gema Pascual eta Debora Galvezekin batera. Puntuazio proba eta eliminazioa egingo dituzte. Bide batez, aurki Mallorkan —Herrialde katalanak— Espainiako Pistako Txapelketa egingo da eta hura prestatzen jarraitzeko balioko dio.

Inaxio Perurena ere bai

Herri kirolak ere izango dira sei ordu hauetan, eta harri-jasotzaileak izango dira nagusi: Miren Urkiolaren eta Mari Jose Sardonen emanaldia 17:25ak aldera izango da eta 100 kiloko harri borobila jasoko dute, biek batera.

Inaxio Perurena leitzarra bere marka hobetzen saiatuko da, 285 kiloko harri angeluzuzenarekin. Hau 19:45ean izango da.

Kirolaz gain, bertsoak entzuteko aukera ere izango da: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak arduratuko dira giroa sortez. Hauek 16:30ak aldera ariko dira belodromoan.

IMANOL ARTANO ▶ PARTE-HARTZE BATZORDEKO KIDEA

«Informazio zehatzik ez dugu, baina AHTk Alegian eragina izango du ziur»

N. Urbizu ▶ Imanol Artano Parte-Hartze batzordeko kide da, eta Alegiko ingurugiro zinegotzia, azken legealdiaz geroztik.

Asko dago egiteko.

Bai, asko. Bileretan 4-5 lagun biltzen gara eta gutxi izatearikin lana bikoiztu egiten da. Bilerak irekiak dira eta denek diotena hartzen dugu aintzat. **Noiztik zabilzate AHTri buruzko informazioa biltzen?**

Lana serio duela 3 hilabete hasi ginen; batekin eta bestearekin hitz egiten. Itsasondora joan informazioa jasotzeko, lehengo asteko AHTren inguruko jardunaldietako jendearekin harremanak izaten... Oso gai zabala da eta baliabide gutxiarekin ari gara, baina badao.

Herri galdeketa egin nahi duzue.

Bai. Itxura hartzen ari da bileren esker, baina ez dugu oraindik bukatu. Ziurra dena da galdera bakar bat egingo dela galdeketa horretan.

Herritarren erantzunaren arabera gauza bat ala bestea egin beharko duzue?

Edozein erataria informazioa eman behar dugu, jendeak jakin behar du nola eragingo dion AHTk. Alde edo kontra egon, informazioa behar da.

Daukazuen informazioaren arabera Alegiarengan eragingo du?

Bai, zuzen-zuzenean gainera. Kamioiak gora eta behera, harrobiak, tuneletatik aterako

duen lurra nonbaiten utzi beharko dute... Informazio zehatzik ez dugu, baina eragina izango duela segurua da. ◀

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

LIZARTZA ▶ INAUTERIAK

Erre dute ijitoa

Igandean amaitu ziren lizartzar edo ijitoen inauteriak;ugar eta txaranga doinu artean joan ziren azken orduak

ASIER IMAZ

Balantze positiboa egin dute antolatzaileek inauteriak amaitu eta gero. Parte-hartze zabalazpimarratu dute, nahiz eta aurreko urtean baino konpartsa gutxiago izan, jende gehiago moztorrotu baita aurtengoan.

Urtero bezala, inauteriak amaitu ondoren moztorro eta balkoi dekorazio politenaren sariak ere ez dira falta izan. Reyes eta Xabier Urkizu izan dira balkoi sariaren irabazleak, Athletic eta Errealaren ikurrak erabiliz apainduriko balkoiagatik. Moztorro mailan berri, koltxoiak arrotzen ibili ziren Rosa-

ria Mendizabal eta Arantxa Arrospideren koadrila aukeratu dute irabazle.

Igandea, azken eguna

Herriko plazan ijito erreketarekin eman zitzaion amaiera Lizartzako inauteriei. Goizez, dantzariak eta txantxoak ibili ziren herriko kaleetan zehar puske-biltzen. Xoxa batzuk eta zer jana bildu eta gero, eguerdian, bertako usadio diren inauteri dantzen emanaldia eskaini zuten herriko plazan. Herri bazkaria eta Isk&bila txaranga alaitu zituen inauterien azken orduak.



Inauterietan aukeratutako alkatesa eta udal korporazioa. IÑIGO ASENSIO

IÑAKI ZUBELDIA ▶ OHOREZKO KAPITAINA

«Inauterien hasiera, lehengo gauzen berritzea zen»

Lizartzako inauteriek ezaugarri bat baldin badute, hori dantza da. Eta dantzak herrian izenik eta izanik baldin badu gaur egun, hori Iñaki Zubeldiari esker da neurri handi batean.

Nondik eta noiztik datoz Lizartzako inauteri dantzak?

Batzuk diote Nafarroa aldetik datoztela baina ezin da ziurtatu. Gure aitak-eta esaten zuten beraien ere ezagutzen zituztela. Ehun urte atzokoak dira kasu honetan, lehenagotik datozten dantzak baitira. Gure gurasoek beraiengandik ikasi zituzten eta geuk gurengandik. Garai batean, hamarretik

bederatzi mutilek inaute dantzak bazekizkiten herrian, oso zabaldua zegoen.

Dantza eta inauteriak lotuta joan al dira beti?

1934. urtean dantzak geratu egin ziren, gerra giroa zela eta. 1955 eta 56ean berriz hasi ginen aintzinako erara eginaz, puske bile eta abar joanaz. Moztorroekin alderantziz gertatu zen; 34ean ez ziren geratu, jendeak inauteri egunetan moztorrotzen jarraitzen zuen, baina gero galduz joan ziren 55etik aurrera. Gaur egungoekin berriz 1993. urtean-edo hasi ginen. Dantza taldearen afari batean, inauteriak be-



Iñaki Zubeldia Otsolar dantza taldeko kidea. A. I.

rreskuratu behar genituela esanaz.

Nondik dator Otsolar dantza taldea?

Gure gurasoek sortu zuten

dantza taldea. Izena berriz ez da aspaldikoa, federazioan-eta izena eskatzen hasi ziren, diru laguntzetako eta. Orduan baikoitzak izen bat bota genuen,



Otsolaroko ohorezko kapitain. A. I.

niri Otsolar izena bururatu zitzaidan, inguruan otsolarra ugaria delako.

Inauteriak beraz dantzaren inguruan mugitzen dira?

Hemen inauteriak berez du dantza. 10 dantza dira Lizartzako inaute dantzak. Gero jendeak parte hartzeko beste modu bat ere aurkitu du, Tolosan bezala konpartsa edo karrozak egiten dituzte. ◀

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldecohitzza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ PILOTA

Bengoetxea VI.a eta Ruiz Olaizola I.a eta Belokiren aurka ariko dira finalerdian

Bai Olaizola I.ak baita Belokik ere «pilotari indar handia» ematen diotela adierazi du Leitzako aurrelariak, finalaurreko norgehiagokari begira



Bengoetxea VI.a Errastiren omenaldian. E. EZEIZA

NAIARA GARZIA

Oinatz Bengoetxeak eta Patxi Ruizek Binakako Txapelketa barruko ezusteko nagusia eman zuten larunbatean Marti-

nez Irujo eta Goñi III.a, txapelketa honetako faboritoak, kalean uztean. Lorpen honen ondoren Bengoetxea VI.ak eta Ruizek enpresa bereko —Asegarce— kideen aurka jokatuko

dute finalaurrekoaren lehenengo norgehiagoka. Asier Olaizola eta Ruben Belokiren aurka, hain zuzen ere, otsailaren 25ean.

Partida bakoitzean pilotariak

aurkarien gaitasunak jakitea garrantzitsua denez, Bengoetxea VI.ak ere hurrengo otsailaren 25eko norgehiagoka horren aurkariaren dohainak azpimarratu ditu: «bai Olaizola I.ak, baita Belokik ere indar handia ematen diote pilotari». Honetaz gain, «hauek momentu onean» daudela azpimarratu du Leitzako pilotariak. «Ostiralean ere partida ederra egin zuten», gaineratu du.

Finala iristeko oraindik partida batzuk falta dira, denak denen kontra ariko baitira finalerdietan, baina «behin faboritoak kanpoan utzita, ez dago argi zeinek irabaziko duen», Leitzako pilotariaren ustez. «Larunbateko norgehiagoka eta gero faboritoak izan ez arren hauei irabazteko gai gara erakutsi dugu, eta orain finalera zein iritsiko den ez dagoela argi uste dut». Oraingoz, behintzat, bi aste izanen dituzte indarrak berreskuratzeko.

«Orain 2 astetako atsedenaldia daukagu eta tarte hau ongi etorriko zaigu».

Ezustekoa

Neurketako lehenengo tantoak Bengoetxea VI.a eta Ruizen aldekoak izan baziren ere, 6-8 zihoztenezan Irujok eta Goñi III.ak 8 tanto egin zituzten jarraian, markagailuan bi bikoteren arteko aldea areagotuz. Baina beraien aurka zihozan markagailuari buelta emateko gai izan ziren Bengoetxea VI. eta Ruiz, 15-8ko markagailua atzean utziz.

Bengoetxea VI.ak joko paregabea egin zuen, bere jokoa erkin 13 tanto lortuz, eta Ruizen laguntzarekin askorentzat Binakako Txapelketaren irabazleak izan zitezkeenak kanpoan utzi zituzten.

Hala ere, partida hasi zenean Patxi Ruizek larunbat arratsaldeko beste ezustekoa eman zuen, bere eskuineko sorbaldak Goñirekin topo egitean lurrrera erori ondoren. Lizarrakoa lurlean gelditu zen Jose Maria Urrutia medikua bera laguntzera joan zen arte. Probageletan zenbait masaje jaso ondoren itzuli zen kantxara. Honetaz gain, Irujok eta Goñi III.ak epailearekin izandako jarrearengatik txartela beltz bana jaso zituzten.

Beste bikoteei dagokienez, Gonzalez eta Pascualek berdinketa hausteke Xala eta Eularen kontra jokatuko dute.

LEITZA ▶ FUTBOLA

Aurrerak beste hiru puntu eskuratu ondoren, lehenengo jarraitzen du

Asteburu honetan San Cristobalen aurka jokatuko duten partida erabakiorra izanen da

N. GARZIA

Igandeko partida eta gero lehenengo jarraitzen du Aurrera futbol taldeak 13 punturekin, Ilunberriren aurka 3-1 irabazi ondoren.

Ez zen ordea partida erraza izan igandekoa. Norghegiagoka hasi eta 10 minutuetara atezainak areaz kanpotik baloia eskuarekin gelditu eta bota egin zuten. Aurrerako arduradunek azaldu duten bezala, «jokalari bat gutxiago izanda guretzako errezagoa izan beharko lukeen arren, haiek defentsan oso ongi aritu ziren». Honela, lei-

tzarrek aukera asko sortu zituzten arren, ez zuten golik sartzen asmatu eta markagailuan 0-0 iritsi ziren atsedenaldira. «Ilunberrikoek oso ongi eutsi zioten jokoari eta gu urduri xamar jarri ginen», azaldu dute taldekoek.

Bigarren zatian, berriz, leitzarrek aurkariak gehixeago estutzea lortu zuten, eta lehenengo gola Unai Tijerok sartu zuen. Ilunberrikoek, ordea, beste bat sartu eta «animoa hartu zituzten».

Gauzak horrela, Aurrerako arduradunek esan dutenez, «irabazi beharreko partida

zen, etxean jokatzen genuelako alde batetik, eta aurkariak jokalari bat gutxiagorekin ari zirelako, bestetik». Honela Ion Arangoak bigarren gola sartu ondoren «haiek behera etorri ziren». Partida amaitu baino lehen, Iker Bengoetxeak hirugarrena sartu zuen.

Hurrengo partida San Cristobal taldearen aurka jokatuko dute, hilaren 18an. «Partida garrantzitsua izanen da, irabaziz gero, 4 puntu aurretik jarriko baikinake, eta hortik aurrera lasaia ibiltzeko aukera izango genuke».

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. Gure eskualdeari buruzko albisteak sartzeko aukera eskaintzen dizu gure webguneak
Zeuk idatzi izena duen atalean. ▶



Aurrera, aurreko urteko denboraldian. J. ASTIBIA

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Egurra. Sutarako pago egur lehorrta salgai. Etxera entregatzen da.
615 75 57 62.

LANA

Elektrizista. Elektrizista enpresa batek langile autonomo edo

kontratupekoak behar ditu. Obrak, industrietarako... 943 80 00 00.

Sukaldari laguntzaileak.

Eskoletarako, udalretarako. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 943 44 48 66.
Gidariak. Erakunde publikoetarako. 943 44 48 66

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Tolosa. Zaldunita Bezperako Danborradarako entsegu orokorra izango da Kultur Etxean 20:00etatik aurrera, Musika Eskolan Bandarekin batera.

Tolosa. Arpegi taldearen Ostiral Meheko jaialdirako sarrerak salgai daude Cantabrico, Triangulo eta Meson Atodo tabernetan.

Tolosa. Zainketa klinikoak eta asistentzialak, haur eta nerabeen zaindariak, optika, ebeko laguntza, geriatria, inmigrazio teknikari laguntzailea. 200 ordu teoriko eta 100 praktiko. Inmakulada ikastetxea: 943 673629.

Alegia. Astelehenero helduentzako klaseak hasiko dira. Helburua lehen ikasitako gauzak gogoratzea eta bi ordu lagunarte on batean igarotzea da. Izen-ematea Udalebeko gizarte zerbitzuetan izango da eta HHLko telefono zenbakian: 943 67 26 60.

Zuzurkil. Izen-abizenak euskal grafiara aldatu nahi duenak Aurrera plazako udal bulegoetara jo dezala errolda agiria (bertan egin daiteke), jaiotza agiria literala, NANen fotokopia eta familia liburuarekin.

Tolosa. Emakumeen aurkako indarkeriarik ez izeneko erakusketa dago ikusgai Aramburu jauregian (egunero, astelehenetan eta jaiegunetan izan ezik), otsailaren 24ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Goizueta. apeztebea, L.M. Kale Nagusia, 61. 112.
 Arribe. Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
 Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.

IRRATIA

Txolarre irrataria (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotza magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hirzaren errepassoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotza (errepikapena).
 20:00-21:00. Goiko eskolatik betti.
 21:00-22:00. Izarrak eta ilargia.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

750.eko kontzertua DVDan

TOLOSA ▶ Udalak 'Tolosa kantuan' 750. urteurreneko kontzertua biltzen duen DVDa kaleratu du; herenegun egin zuten aurkezpena Musika Eskolan



Jende ugari bildu zen Tolosa kantuan DVDaren aurkezpenean. I. ASENSIO

ERREDAKZIOA


Nork ez zuen Tolosaren 750. urteurreneko kontzertua ikusterik izan? Bada, Tolosako Udalak orain kontzertua biltzen duen DVDa kaleratu duenez, guztiak izango dute ikusteko aukera.

Tolosa kantuan izeneko DVD honen lehen irudiak herenegun ikusi zituzten herritar batzuk Musika Eskolan, orfeoia eginiko aurkezpenean. Hain zuzen ere, Zortzikoa eta Tolosako himnoari dagozkion zatiak erakutsi zituzten bertan. Ainhoa Arteta sopranoaren figura ere gogora ekarri zuten ekitaldiko aurkezleek eta eskerrak luzatu nahi izan zioten.

Ekitaldira gerturatu zirenek kontzertuaren irudiekin eta Tolosa Begi-bistan saioko irudiekin osaturiko DVDa erosteko aukera izan zuten.

Joan den irailaren 15ean aurkeztu zuen orfeoia ereserkia Leidor aretoa. Orfoiarekin batera, Ainhoa Arteta soprano handiak, Gorka Knörr eta Urko bakarlariek ere hartu zuten parte. Haiekin batera, Tolosako 750 ahotsek osatu zuten urteurreneko ekitaldirik garrantzitsuenak.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Amona Joxepa (Abaltzisketa). Bihar 102 urte. Asko maite zaituen Larrazti zure bilobaren partetik. 102 muzu handi. Jarratu horrela!



URTE ASKOAN
 Joxe Antonio eta Dolox (Amezketeta). Zorionak zuen 60. ezkon urteurrean, familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udalebeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...